

TXERA SORGIÑA

Zuk ba-dakizu ondo,
danak dau garaia:
argiaren mintzean
bake aroz zelaia..
Giza-biotzak dakar
irriaren naia..
Zuk entzun zenduan bart
nire kanta alaia.

Kanta ori bizitzan
ba-doa, ba-dator,
txinboan lez umea
aize emoilie bizkor;
irauli ta ba-doa
aidean astikor;
atzi nai, ta ba-doa
eskutik labankor.

Olantxe zabiltza zu,
maite joku arin;
aketo naiz indartsu
—zure ikutze gordin—,
zauritu daizun dana
izten dozu samin;
naiz-ta kiñuz, beste bein,
oro izan atsegin.

Zauria —olantxe da—
odolez dagola,
gozo jkutu ezker
zornatsu beiñola,
gorria lora zuri
biur oi da iñola,
begi txera sorgiña
erosko dozula.

AMA, AMATXO!

Zer dagiket kanta? Nor gorets, zu ezik?
Bai al dot, ezertxo be, eresgai oberik?

Ama! entzun, otoi, semeak autorra,
iñoiz aultzen ez dan maitezko txingarra.

Bebilt bai inguruan zure itzal urdiña,
ez zar ez urrunez amildu eziña.

Zuk zelan jakin ez —Goikoak ba-daki—,
or sabel barru sor ninduzun alaiki.

Baita, arrezkeroan, egun luzez zaindu,
Jainkoak lilia baizen arduratsu.

Nik negar, zuk mosu —erlea burrundin—;
au luzaro bion arteko zeregin.

Maite zaitut, maite; maite nozu, maite,
gizonak mingaiñez esan ezin beste.

Zer dozu begian, eneño kutuna?
Biotz barne, lazki, sar dautzut eztena.

Uts egiñaz baiña damu naz betiko;
ez dot ostera qaitz-biderik artuko.

Barriro be, ama..., begian zer dozu?
Ni alde bearrak goibel ete zaitu?

Txuka zotin orreik, betor poz-argia;
oi, nik ez nai ikusi zu laiñoz josia!